

6. DONOSTIA KULTURA POESIA LEHIAKETA

BALEA ZURIA ARGITALETXEAK, DONOSTIA KULTURAREN LAGUNTZAREKIN, EUSKARAZKO POESIA ZABALDU ETA IDAZLE GAZTEEN LANARI BULTZADA EMATEKO ASMOZ, DK POESIA LEHIAKETAREN 6. EDIZIOA ABIAN JARRI DU, HONAKO OINARRI HAUEKIN:

1.

Deialdi honetara poesia bildumak aurkez daitezke, euskaraz eta bakarka idatziak, originalak, inon argitaratu gabeak eta inongo literatura-lehiaketatan saririk eskuratu gabeak. Baldintza hauetakoren bat bete ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da egilea, horretarako epaimahaiak eta **Donostia Kultura**k berariazko erabakia hartu eta gero. Epaimahaiak, epaia publiko egin eta gero, frogatuko balu saritutako lanak ez duela baldintza horietako bat betetzen, jasotako saria itzuli beharko du egileak.

2.

Deialdia adin nagusiak diren egile berriei zuzenduta dagoenez, baldintza hau bete beharko da: Lana entregatzean 35 urte bete gabe izatea. Baldintza horren muga proiektuak jasotzeko unekoa da.

3.

Lanen luzera, gutxienez 600 bertso-lerrokoa izango da, eta gehienez 1.000koa. Gaia, errima eta neurria libreak izango dira.

4.

Lanak emailaz aurkeztu beharko dira, honako helbide honetan: **<dkpoesialehiaqueta a bildua donostia.eus>**

Lanaren egileak bi dokumentu bidali beharko ditu:

-Batetik, lehiaketara aurkeztuko den poesia bilduma PDF formatuan eta izenburuarekin, egilea nor den jakitera eman dezakeen inolako daturik jarri gabe.

-Bestetik, lanaren izenburuaz gain, egilearen datuak jasotzen dituen agiria: Izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia eta e-posta, NANaren fotokopia bat erantsita duela.

5.

Lanak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

6.

Eli Tolaretxipi, Aritz Gorrotxategi eta Itxaro Borda idazleek osatutako epaimahaiak jasotako lan guztiak aztertu eta haien arteko bat izendatuko du irabazle 2023ko martxoaren 21a baino lehen. Epaitze lan horretan Donostia Kulturak idazkaritza lana egingo du. Sari banaketa aste horretan egingo da. Parte-hartzaileen lanak 15 egunez gordeko dira sari banaketa egiten den egunetik aurrera kontatuta. Epe hori gaundituta, egileek ezingo dute lana berreskuratu. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, beka eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

7.

Saria 1.000 euro izango da. Horrez gain, Imanol Larrinagaren margolan bat emango zaio irabazleari.

8.

Sari ekonomikoaz gain, **Balea Zuria** argitaletxeak argitaratuko du idazlana eta egile-eskubideak ohiko moduan ordainduko dizkio egileari. Epaimahaikoek onespina ematen dutenetik lau-bost hilabeteko epean kaleratu beharko da liburua, eta bertan, bekaren aipamena egingo da nahitaez.

9.

Irabazlea Poesia eta Pentsamendua errezitaldian parte hartzera gonbidatua izango da.

10.

Literatura Lehiaketa honetan parte hartze hutsak oinarrian erabateko onspina adierazten du. Oinarri hauetan aurrekusi gabeko gorabeheraren bat sortzen bada, epaimahaiak ebatziko du.

DATUEN BABESA: eskabide orri honetako datuak Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren fitxategian erantsiko ditugula eta eskabidean azaldutako helburuetarako erabiliko direla jakinarazten dizugu, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (1999-12-14ko BOE), datu pertsonalak babestekoak, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat. Emandako zenbait datu literatur lehiaketako erakunde laguntzaileei jakinaraziko dizkiegu. Datu horiek ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu aipatutako legeak aurreikusten duen eran.

